
BERDINTASUNAREN ALDEKO ZENTROAEZ:BERDIN

**Sentsibilizazioa,
Formakuntza eta ikerketa
Maskulinitasunean eta
Sexismoan**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

ARABAÁLAVA
Eradugarreria *El modelo de Vida*



Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa

ez:berdin



ez:BERDIN

*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

Ez:Berdin Zentroa dugu honako hauen 4 urteko lanaren emaitza:

- AFAko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, UPV/EHUko Gizarte Psikologiako Saila eta gizonekin eta genero kontuetan eskarmentua duten prestatzaile talde bat.
- AFAko Gizarte Sustapena Zuzendaritzaren Berdintasun Arloa: jarraitu du garatzen GOFEk egindako lana.
- On:giz Berdintasunaren aldeko Elkarteak
- GHIA, Berdintasun aldeko Arabako gizon taldea



ez:Berdin

Centro Para la Igualdad Berdintasunaren Aldeko Zentroa

Ez:Berdin Zentroak indarrean dagoen sexu-genero sistemaren desagerpenerako ekarpena egin nahi du, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean ere.

Gure jarduera zein programen definizioan eta planteamenduan, iturri teoriko-praktiko anitzen eragina jaso dugu:

- Emakume teoriko feministena (emakumeen gaineko eta generoaren gaineko ikerketak); halaber, mugimendu feministena eta emakumeen mugimenduena.
- Maskulinitasunaren arloko gizon eta emakume teoriariena.
- Gure erkidegoko eta bestelako kultur- eta geografia-eremutako gizon talde batzuen lana eta eskarmentuena.



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

ez:Berdin

Proiektua garatzen urtebete baino gehiago eman ostean, Ez:Berdin Zentroak bere atek zabaldu zituen 2009ko otsailean.

Proiektuak 4 jarduera-ardatz ditu:

- Sentsibilizazioa
- Aholkularitza
- Prestakuntza
- Ikerkuntza / Ebaluazioa

Lan ardatz hauek sexismoari aurre egiteko tresna baliagarriak dira, gizartean dirauen sexismo estrukturala aztertzeke egokiak diren neurrian; halaber, ezagutza eraisteko, ikasitakoa baztertu eta eredu berriak ikasi, eta begiratzen ikasteko.

Mundua ikuspegi ez sexista batetik ulertzea, berdintasunezko eta bidezko jokabideak gure egunerokotasunean gauzatzea, eta etorkizuneko



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

gizarte berriaren eraikuntzan gizonezkoen konpromisoa bultzatzea, oinarri sendoak dira Ez:berdin Zentroarentzat

SENTSIBILIZAZIOA

Pertsonen parte-hartze eta inplikazio handiagoa lortzera bideratuta daude, bereziki gizonena, emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko. Era berean, helburu horretan aurrerapauso nabariak emango dituen masa kritikoa sortzeko.

Hona hemen, egun abian diren jardueretako batzuk:

“Gizonezkoen inplikazioa berdintasunean” izeneko jardunaldiak (mugimenduaren historia eta gaur egungo errealitatea); Bideo-forum saio



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

ez:BeRin

monografikoak hilero; Zine eta generoari buruzko jardunaldia; Data giltza direnen inguruko Kanpainak:(martxoaren 19ko kanpaina-aitatasun erantzukidea; ekainaren 28ko kanpaina - sexu aniztasuna; azaroaren 25eko kanpaina -emakumeen kontrako indarkeria); talde mota anitzei zuzendutako hitzaldiak.

AHOLKULARITZA

- Berdintasunaren aldeko edota sexu bereizkeriaren aurkako gizon taldeen eraketan.
- Generoari eta maskulinitatei buruzko hitzaldiak, jardunaldiak edo formazio saioak antolatzeko aholkularitza.



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

PRESTAKUNTZA

Prestakuntza guretzat bi mailatan lan egitea ahalbidetzen duen balio handiko tresna da: 1) Maila ideologikoan: genero-harremanekin eta ezberdintasunekin erlazionatuta dauden alderdi ideologikoei, kulturelei eta sozio-politikoei ekiteko; 2) psikologiko-emozionala: norberari gizon eta emakume bezala garatzeko eta sentitzeko lagungarri zaizkion bizipen eta emozioen mundua aintzat hartuz; halaber, gizon-emakume eta gizon-gizon harremanei dagozkienak.

Horren harira, formazioaren garrantzia azpimarratzen dugu, emakumeak eta gizonak giza-aldaketaren eragile bihurtzeko duen ahalmenagatik. Gizonen adibidea nabaria da, beste gizon batzuen sentsibilizazioa eta



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

kontzientziazioa bultzatu dezaten, hausnarketa-ekintza taldeen antolaketaren bidez. Honekin batera, genero-harreman sozialak eraldatzea helburu duen gizon taldeen sarea sortzeko ahaleginetan.

ESKAITZEN DITUGUN IKASTARO-MOTAK

- Hastapen edo sentsibilizazio ikastaroa: 16- 20 ordu; 2 orduko 10 modulutan banatuta, 2,5 orduko 8 modulutan, 3 orduko 6 modulutan, 5 orduko 4 modulutan.
- Kontzientziazio ikastaroak: 25-60 orduko ikastaroak 2, 2,5, 3, 4, 6 edota 8 orduko



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

ez:BeRin

modulutan banatuta, partehartzaileen aukeren araberako antolaketa eskainiz.

- Dinamizatzaileentzako edota hezitzaileentzako ikastaroak: Nahitaezkoa da kontzientziazio prozesua egina izatea, baita ere ideologiaren eta jarreraren eraispena (aurreko ikastaroa). 25-60 orduko egitaraua, 2, 2,5, 3 edota 4 orduko modulutan antolatuta.

IKERKETA

Ardatz guztietan zeharkako elementua da. Honen bidez, honakoa lortu nahi dugu:

1. Mask
ulinitateak, Identitateak eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloetan, ikerketa proiektuak garatzea.



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

ez:BeRin

2. Erem
u honetako ikertzaileen eta adituen arteko
elkarlana bultzatzea, Unibertsitatearen eta
gizartearen artean, elkarlanean jarduteko bideak
sustatuz.

3. Ikerke
ta lanak gizartera zabaltzea, ikertaren beraren
berezko ezagutzaren ekoizpena jendaurrean
azaltzeko bideak sortuz, pertsona guztiengana
heldu nahian.,

4. Ikerke
ta eta ekintza uztartzea, ikerketa-ekimena-parte
hartzea ereduaren metodologiak oinarri bezala
hartuz, komunitatea abiapuntu eta helmuga izanik.
ezagutza sortuz



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

Nori zuzenduta daude gure jarduerak eta zerbitzuak

- Gizarteari, oro har.
- Gazteei
- Hezkuntza zentroeiei
- Eremu anitzetako profesionalei
- Ekintzaile taldeei
- Eta, bereziki, adin guztietako **gizonezkoei**.

**NOLA JARRI HARREMANETAN
EZ:BERDIN ZENTROAREKIN?**



*Centro Para la Igualdad
Berdintasunaren Aldeko Zentroa*

ez:BeRin

ezberdinzentroa@gmail.com

945 23 34 62

606380308